



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ERRI PAPER RA

2020ko ekaina • 51. zenbakia

'BERTATIK BERTARA' kanpaina abian da, GURE HERRIAK ETA GURE HIZKUNTZA ALDARRIKATZEKO

UEMAk eta 61 udalek elkarlanean abiarazi dute kanpaina, UDALERRI EUSKALDUNEN ABERASTASUNA NABARMENTZEKO. Besteak beste, GURE HERRIAK, HIZKUNTZA, KULTURA, BAZTERRAK, PRODUKTUAK, ELIKAGAIAK EDOTA HEDABIDEAK ALDARRIKATU ETA IKUSARAZI NAHI DITU EKIMEN BERRIAK. **2-3 ORR.**



Ikastaroak online ematen hasi da UEMA

Osasun LARRIALDIAK ERAGINDAKO ITXIALDIAREN OSTEAN ADMINISTRAZIOKO HIZKERA ETA TESTUAK EGOKI LANTZEKO UDAL LANGILEEK JASOTZEN DUTEN EUSKARA IKASTAROA IZAN DA LEHENENGOA. **4 OR.**

Euskarari eusteko eskaera EITBri

UEMAk eta ETBko arduradunek bilera egin dute UDALERRI EUSKALDUNETAKO ALKATEEI, ZINEGOTZIEI ETA HERRITARREI ERDARAZ HITZ EGINARAZTEAK ERREALITATEA DESITXURATZEN DUELAKOAN. **5 OR.**

BERTAKO ALTXORREN DISTIRA ETA ZAPOREA

GURE HIZKUNTZA, GURE BAZTERRAK ETA GURE PRODUKTUAK ALDARRIKATU NAHI DITUEN KANPAINA ABIAZTE DUTE UEMAK ETA 61 UDALEK, BISITARIAK ETA HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEKO, EUSKARATIK.



BERTATIK BERTARA

Gure herria, gure hizkuntza, gure arnasa



El nostre poble, la nostra llengua, la nostra gent.
Gent de mar, de rius i de muntanyes.
Gent que parla de vida.
Nuestro pueblo, nuestra lengua, nuestros latidos.
Os nosos pobos, a nosa lingua, a nosa xente.



Kanpainaren berri ematen duten kartelak eta mahai-gainekoak banatu dituzte UEMAK eta udalek merkatarien, ostalarien eta oro har zerbitzu sektoreko eragileen artean.

Udalerri euskaldunek beren baitan biltzen duten aberastasuna ikusaraztea eta aldarrikatzea du helburu Bertatik Bertara kanpainak. Udalekin eta zerbitzu sektoreko eragileekin batera, herritarrak zein bisitariak sentsibilizatzeko ekimena izan nahi du. Udaren atarian ekin dio bidea, turismo eskaintzan bertako altxorak nabarmenduz, euskararen erabileratik hasita. Udazkenetik aurrera, berriz, udalerri euskaldunen garapenarekin lotutako hainbat ekimenen aterpe ere izango da kanpaina, udaletatik tokian tokiko produktuak eta ekonomia sozial eraldatzailea nola lagundu daitezkeen hausnartzeko eta lanerako ildo berriak abiarazteko.

COVID-19AREN ONDORENGO EGOERA

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, aldaketa handia izango du batetik bestera bidaiatzeko eta atsedean egunak antolatzeko moduak. Beraz, inoiz baino gehiago, gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu

“GURE HERRIEN BENETAKO GARAPENA HERRIARI ARNASA EMATEN DIOTEN SEKTOREETAN DAGO”

hilabete hauetan. Horregatik, UEMAK, udalek eta hainbat eragile bat egin dute Bertatik Bertara kanpainarekin, herritarrei eta bisitariari erakusteko udalerri euskaldunak zer-nolako altxorak diren, bertatik bertara zenbat goza daitekeen nabarmenduz, bertako produktuekin, bertako kulturarekin eta bertako ekonomian oinarritutako garapenari eskutik helduta. Beti ere udalerri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela ahaztu gabe.

ABIAN DIREN BESTE HAINBAT KANPAINEAN OSAGARRI

Osasun larrialdiak eta konfinamenduak ekonomikoki zerbitzu sektorea gogor

kolpatu duenez, hainbat udalek martxan dituzte sektorea suspertzeko kanpainak eta dirulaguntzak. Udal asko, esaterako, herriko komertzioak eta ekonomia hauspotzeko neurriak eta erosketa-bonuak bideratzen hasi da.

UEMAko lehendakari Iraitz Lazkanoren hitzetan, “Bertatik Bertara kanpaina horien guztien osagarri da. Udal gehienak egoera larria ahal den egokien bideratzeko egiten ari diren ahaleginaren erdian, garrantzitsua da gainerako erakunde publikoek ere bidea hori dela nabarmentzea, gure herrien benetako garapena herriko ekonomian eta herriari arnasa ematen dioten sektoreetan dagoela sinetsita”.

Hori guztia ikusarazi nahi du Bertatik Bertara kanpainak. Gure herriak, gure bazterrak, gure hizkuntza eta gure produktuak nabarmentzen ditu hasiera batean, baina horie estuki lotuta, baita gure herrietako dendak, bertako elikagaiak, lehen sektorearen garrantzia, bertako kultura eta bertako hedabideak ere. UEMAKo

lehendakariaren hitzetan, “horiek guztiak dira gure herrien taupadak, eta ezinbestekoa da herritarrek eta zerbitzu sektoreak hori ulertzea, gero bisitariari ere erakusteko eta koherentziaz aritzeko”.

Udazkenetik aurrera, beste urratsa: Bertako produktuak eta garapena

Kanpainaren lehen euskarriak udako lehen hilabeteetarako aurreikusi eta prestatu ditu UEMAK. Besteak beste, jatetxe, taberna eta ostatuetan otorduren bat egiten duen edonork mahai gainean ikusi ahal izango duen mantela, edota udal eraikinetan eta dendetan ikusgai egongo diren kartelak, herritarrak eta bisitariak kontzientziatzeko.

Udazkenetik aurrera, ordea, beste urrats bat egin nahi du UEMAK, udalerrri euskaldunen garapenaren inguruan azken urteotan abiarazitako ildoaren baitan. Horretarako, bertako produktuak eta elikagaiak, lehen sektorea laguntzeko ekimenak edota ekonomia sozial eraldatzailearen alde hainbat eragilek egindako bidea udaletatik laguntzeko modua zehaztu nahi da.

Iraitz Lazkanoren hitzetan, “Bertatik Bertara kanpainarekin kontu horri ere heldu nahi diogu, udalei eta erakunde publikoei dagokigun arduratik. Gure herriez eta gure hizkuntzaz gozatzeko gonbidapena egitearekin batera, gure herriei bizirik eusteko bertako elikagaiak eta produktuak ere giltzarria direla nabarmendu nahi dugu, eta guztion hausnarketa eta ohitura aldaketak bultzatu. Zenbait herritan ekimen eredugarriak abiarazi dituzte azken urteotan ildo horretan, eta horiek ezagutaraztea eta udalei bide hori egiten laguntzea ere bada kanpaina honen hurrengo faserako aurreikusita daukaguna. Horretarako, udal ordezkariak ez ezik herritarrak kontzientziatzea ere giltzarria izango da”.

“KANPOKO JENDEAK GURE HERRIA DEN BEZALAKOA IKUSTEA NAHI DUGU: EUSKALDUNA, KALETARRA ETA BIZIA”

Arantza Atxurra (Ondarroa, 1983) Euskara batzordeburua da Ondarroan. UEMArekin eta beste 60 udalekin batera abiarazi duten Bertatik Bertara kanpainaren harira, herriko hizkuntza, merkataritza eta bizitza nabarmendu ditu, eta bisitariari horietan murgiltzeko gonbidapena egin die.

Ondarroak zergatik hartu du parte Bertatik Bertara kanpainan?

Alde batetik, gure herriko ekonomia sustatzeko eta, jasaten ari garen krisiaren ondorioz, ostalaritzak jaso duen kolpeari aurre egiteko modu bat delako. Bestalde, eta momentuko egoeratik haratago, turismoa bultzatzeak, potentziala duen sektore sozioekonomikoa izanik, hainbat onura ekarriko lizkioke herriari, horretan ez dago zalantzarik; baina sustatu nahi dugun turismo ereduaz hausnartu dugu, eta turismo jasangarria da guk nahi duguna, gurea zainduz, gure herria eta herritarrak. Horregatik, kanpoko jendeak Ondarroa den bezalakoa ikustea nahi dugu, euskalduna, kaletarra, bizia... eta giro horretan murgildu eta gozatzera gonbidatu nahi ditugu.



Arantza Atxurra, Ondarroako zinegotzia eta Euskara batzordeburua.

Ondarroan, zehazki, ‘Ondarroako bonoak’ kanpaina abiarazi duzue, beste herri askok egin duten antzera. Bi kanpainak bateragarriak dira, tokian tokiko merkataritza eta ekonomia aldarrikatzen duten heinean, ezta?

Bai, mota honetako kanpaina bat baino gehiago egin ditugu azken urteotan. Lehen aipatu dugun kale bizia irudikatzea ezinezkoa da denda txikirik gabe, eta, horregatik, merkatariei bultzada emateko mota honetako kanpainak oso eraginkorrak dira: udalak laguntza txiki bat emanda

jendeak herriko dendetan kontsumitzea lortzen da.

Bertatik Bertara kanpaina eta Bonodendena, noski, bateragarriak dira. 30 euroko bonoak dira, eta 20 eurotan saltzen dira, hau da, 20 euroren truke 30 eurotan gastatu ditzakezu kanpainarai atxikituta dauden herriko dendetan. Kutxabank kutxazaintan erosi daitezke edota interneten bidez baita ere. Hori bai, lehenengo kanpaina hau ekainaren 30ean bukatzen da, eta irailean beste berri bat abiatuko dugu, eta dendeekin batera ostalaritzako sektoreari zuzendutako bonoak ere aterako ditugu.

‘BERTATIK BERTARA’ KANPAINAREKIN BAT EGIN DUTEN 61 UDALAK

Honakoak dira UEMArekin elkarlanean kanpaina parte hartzen ari diren 61 udalak, zenbait udal elkarterekin eta garapen agentziekin batera.

· Aduna
· Aizarnazabal
· Alkiza
· Altzo
· Amoroto
· Araitz
· Aramaio

· Arantza
· Arantzazu
· Arbizu
· Areatza
· Ataun
· Azpeitia
· Bakio

· Baliarrain
· Basaburua
· Baztan
· Bera
· Berastegi
· Bergara
· Bermeo
· Dima
· Ea
· Elgeta
· Etxalar
· Etxarri Aranatz

· Ezkio
· Gabiria
· Gatika
· Getaria
· Goizueta
· Igantzi
· Igorre
· Itsasondo
· Itziar
· Larrabetzu
· Larraun
· Leaburu-Txarama

· Lekeitio
· Lesaka
· Lizartza
· Mañaria
· Markina-Xemein
· Mutriku
· Oiartzun
· Ondarroa
· Oñati
· Orendain
· Oresa
· Orrio


· Orozko
· Otxandio
· Segura
· Usurbil
· Villabona
· Zaldibia
· Zarautz
· Zerain
· Zestoa
· Ziortza-Bolibar
· Zumaia

Ikastaroak online ematen hasi da UEMA, eskaintzen dituen saioak eta ikastaroak moldatuta

UEMAko teknikariek ematen dituzten ikastaroak eta saioak online moldatzeko beharra agerian utzi du konfinamenduak, eta horri erantzunez lehen urratsak egin ditu UEMAk. Administrazioiko hizkera eta testuak egoki lantzeko udaletako langileek jasotzen duten trebakuntza ikastaroa, esaterako, dagoeneko online egin daitezke.

UEMAren zerbitzuen baitan, batean eta bestean hamaika ikastaro, tailer eta saio ematen dituzte teknikariek herriz herri. UEMAko kide diren herrietako udal langileek euskaraz egoki idazteko ikastaroak, herritarrak sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko tailerrak, hezkuntza proiektuaren baitan eskoletan ematen diren saioak, eta abar. Urtean zehar asko eta asko dira itxialdia baino lehen aurrez aurre ematen ziren ikastaroak eta tailerrak.

COVID-19ak sortutako osasun larrialdiak eta hark ekarritako alarma egoerak, ordea, irakaskuntza goitik behera irauli du, eta horrek UEMari ere eragin dio. Zehazki, ikastaroak eta hainbat saio online eskaintzeko modua aztertu zuen mankomunitateak konfinamendua hasi orduko. Zenbait teknikari apirilean eta maiatzean trebatu ziren horretarako, eta UEUk eskaintutako online irakaskuntzari buruzko ikastaroan hasietako urratsak egin ostean, lehen ikastaroak moldatu dituzte Moodle plataformarako.



Administrazioiko hizkera eta testuak egoki lantzeko trebakuntza ikastaroa eskaintzen die UEMAk udal langileei.

Udal langileek administrazioiko eguneroko testuak euskaraz egoki idazteko jasotzen duten trebakuntza ikastaroa izan da lehenengoa. Ekainean, dagoeneko online egin dute Ataungo hainbat langilek, eta gainerako herrietarako ere prest dago.

Udazkenetik aurrera, berriz, hezkuntza proiektuaren baitan eskoletan ematen dituen hainbat saio online eskaintzeko aukera eta modua ari da aztertzen eta prestatzen orain UEMA, ikasturtearen hasierarako prest egon daitezke.

LEHENENGOA, UDALETAKO LANGILEEK EUSKARAZ EGOKI IDAZTEKO TREBAKUNTZA IKASTAROA

UEMAren zerbitzuen baitan, UEMAko kide diren udaletako langileak euskaraz egoki idazten trebatzeko ikastaroa aspaldikoa da. Era berean, baita eskaera gehien duenetakoa ere. Izan ere, ikastaro honen helburua da udal langileek administrazioiko hizkera erraza eta zuzena erabiltzea, udalaren eta herritarren arteko komunikazioa egokia eta gardena izan dadin.

Orain arte presentzialki eman izan du UEMAk, hiru orduko lau saiotan. Horietan ematen diren azalpenak bideoan ikus daitezke orain online

ikastaroan, eta udal langileek egiten dituzten ariketak ere modu askotara egin ahal izateko egokitu dira Moodle plataformarako.

Batetik, administrazioiko hizkeran ohikoak diren akatsak lantzen dira. Bestetik, agiri ereduak egoki idazteko azalpenak ematen zaizkie langileei: gutunak, deialdiak, bandoak eta horrelakoak modu egokian idatzi eta zabaldu ahal izateko. Ikastarorako prestatutako materiala ere bi zati horien arabera banatuta dago. Horren guztiaren osagarri, lantzen diren gaien inguruko

testuak ere eskura dituzte ikastaroan: laburtzapenen gainekoak, maiuskula eta minuskulen ingurukoak, esaldi lauseoi buruzkoak eta antzekoak.

ATAUNDARRAK AITZINDARI

Ekainaren hasieran, Ataungo Udaleko hainbat langile hasi zen ikastaroa egiten. Horiek izan dira aitzindariak, lehenengoak. Aurrerantzean, gainerako herrietako udal langileek ere aukera izango dute online egiteko ikastaroa, beti ere dagokien UEMAko teknikariarekin adostuta datak eta gainerakoak.



ADIERAZPENAK BILTZEAN, UDALERRI EUSKALDUNETAKO ERREALITATEA ERRESPECTATZEKO ESKATU DIO BERRIRO UEMAK EiTBRi, ELKARLANERAKO ESKUA LUZATZEAREKIN BATERA

UDALERRI EUSKALDUNETAKO ALKATEAK, ZINEGOTZIAK EDO HERRITARRAK ETBn GAZTELERAZ HITZ EGITEN AGERTZEAK UDALERRI EUSKALDUNEN IRUDIA LAUSOTZEN DU, IRUDI HORREK EZ DUELAKO HERRI HORIETAKO ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOA ISLATZEN. HORREK KEZKA ERAGIN IZAN DU UEMAREN BAITAN, ETA EGOERA IRAULI NAHIAN, IRIZPIDEAK FINKATU, UDALAI JAKINARAZI ETA EiTBRekin BILERA EGIN ZUEN 2014an. HARREZKERO, IBILBIDE LUZEA IZAN DU GAIAK, BAINA ORAINDIK ERE ETBn GAZTELERAZ ENTZUN DAITEZKE UDALERRI EUSKALDUNETAKO ORDEZKARIEN ETA HERRITARREN ADIERAZPENAK. BERAZ, UEMA BERRIRO BILDU DA AURTEN EiTBRekin.



Udalerrri euskaldunetako udal ordezkariak eta herritarrak ETBn gazteleraz hitz egiten ez jartzeko eskatu du UEMAK.

UEMAren eta EiTBRen ordezkariak bilera egin zuten otsailean, EiTBR Bilbon duen egoitzan. Udalerrri euskaldunetako errealitate soziolinguistikoa errespetatzeko eta zaintzeko eskatu zion UEMAK EiTBRi 2014an, eta orduan egindako eskaerak eta bi aldeen artean hartutako konpromisoak aztertzeko bilera izan zen otsailekoa, bi aldeen aldetik hainbat neurri hartu diren arren oraindik egiteko lan handia dagoelakoan.

Izan ere, duela bost urte gai hau plazaratu zenetik, hainbat mugarri izan ditu kontu honek, baina oraindik ere bi aldeetan “pedagogia lan handia egin beharra” dagoela ikusi dute bai UEMAK eta bai EiTBR.

Esaterako, euskaldunak ETB2n euskaraz aritzearen aldeko agiria plazaratu zuten udalerrri euskaldunetako ehundik gora kultur gilek, kirolariek eta kazetariek 2014an, ETBn gazteleraz aritzeari uko eginez. Euskal Herriaren mapa linguistikoa desitxuratzeaz gain ETBren sorrerako helburu nagusienetakoa (euskararen

normalizazioa) baztertzeko duela zioen agiri hark.

Harrezkero, erabakiari bere horretan eutsi diote kultur gile, kirolari eta kazetari horietako gehienek, baina ETBko albistegietako mikroak udalerrri euskaldunetako alkate, zinegotzi eta herritarrengana hurbiltzen direnean bestelakoa da egoera, ia egunero.

Konpromisoa eta elkarlana

UEMAk egindako eskaeren ondoren, adierazpenen hizkuntza tratamendua arautu zuen EiTBR. Besteak beste, honakoa adieraziz: “Modu naturalean, euskarari leihobat zabalduko zaio ETB2ko albistegi eta aktualitateko magazinetan. Gauza bera gertatuko da Radio Euskadiko eta Radio Vitoriako saio eta albistegietan ere”. Hartutako konpromisoa, ordea, hutsean geratu da kasu gehiegitan. Beraz, bere garaian egindako eskaerak berretsi eta orduan hartutako konpromisoei eusteko eskatu zaio orain berriro EiTBRi.

UEMAren IRIZPIDEAK

Gaiari behar bezala heltzeko, hainbat irizpide zehaztu zituen UEMAK 2014an, batzar nagusian, udalerrri euskaldunetako alkate eta zinegotziek hedabideen aurrean hitz egiterakoan kontuan izateko:

- UEMAKo kide diren udal antolatutako prentsa agerraldiak euskaraz hutsean egitea.

- EiTBRko kazetariren batek zuzeneko adierazpen laburrak egiteko eskatuz gero udal ordezkariari, honek euskaraz bakarrik erantzutea.

- EiTBRen erdal hedabideetan elkarrizketaren batean edo programa jakin batzuetan parte hartzerakoan euskaraz egin nahi dutela adieraztea UEMAKo kide diren herrietako udal ordezkariak. Horretarako aukerarik ematen ez zaien kasuetan, ordezkariaren eta udalaren esku geratzea parte hartu ala ez erabakitzea.

UEMAren zenbait ekimen atzeratu egin dira



Besteak beste, Zumaiaetik Lekeitiora egitekoak ziren Udalerrri Euskaldunetako Gazteen Topaketak utzi behar izan ditu UEMAk bertan behera.

UEMAk 2020ko PLANGINTZAN eta EGITASMOETAN aurreikusitako zenbait kontu bertan behera utzi behar izan ditu, udaberrian COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren eta alarma egoeraren ondoren. Maiatzaren 30ean Seguran egitekoa zen Udalerrri Euskaldunen Eguna edota ekainaren amaieran hastekoak ziren Udalerrri Euskaldunetako Gazteen Topaketak dira nabarmenenak.

Ekainaren 29tik uztailaren 5era egitekoak ziren udalerrri euskaldunetako gazteen topaketak, Zumaiaetik Lekeitiora, baina COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz azkenean bertan behera utzi behar izan ditu UEMAk, ohiko moldean behintzat. Urte amaieran hezkuntza araututik kanpo gazteentzat beste zerbait eskaintzea aztertzen ari dira UEMAKo hezkuntza arduradunak. Maiatzaren 30ean Seguran egitekoa zen Udalerrri Euskaldunen Eguna, berriz, hurrengo urtera atzeratzea erabaki zuten UEMAk, Segurako Udalak eta eguna prestatzeko elkarlanean ari ziren Segurako taldeek eta elkarteek, egunari behar bezalako ilusioarekin eusteko eta ahalik eta festa herrikoiena antolatzeko.

'ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA' GRADUONDOKOA eskainiko dute EHUK eta UEUK IKASTURTE BERRIAN

'ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA' ADITU-TITULUA (15 ECTS KREDITU) ANTOLATU DUTE EHUK eta UEUK, UEMAREKIN eta KONTSEILUAREKIN batera, eta ekainaren 30 arte zabalik da MATRIKULA EGITEKO EPEA. 150 ORDUKO GRADUONDOKOA DA. ERDIAK aurrez aurreko eskolatan eskainiko dira, 2020ko URRTIK 2021eko APIRILERA, eta beste ERDIA IKASGELA BIRTUALEAN LANDUKO DA. GRADUONDOKOA EHUREN BEREZKO TITULUEN eskaintzan sartzen da, eta HIZKUNTZA eta LURRALDEA LOTZEN DITUZTEN HAINBAT ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK IZANGO DIRA IRAKASLEAK, TARTEAN BAITA ELE SORTU DUTEN UEMAKO ARDURADUNAK ere.



Lurralde-antolamenduko eta hirigintzako planen eta proiektuen inpaktu linguistikoa neurtzen lan egiteko aukera izango dute ELE aditu titulua eskuratzen duten ikasleek.

ELE aditu titulua eskuratzen dutenek lurralde-antolamenduko eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa neurtzen lan egin ahal izango dute. Administrazio publikoen zein enpresa pribatuen eskaria handia baita, EAeko 2/2016 Toki Erakundeen legeak eta hura garatzeko dekretuak ELE egitea derrigorrezko bihurtu dutelako. ELE eraikin, azpiegitura edo plan berrien balizko hizkuntza eragina aurreikusten duen prebentzio-tresna da, eta ezinbestekoa udalerrietan gerta daitezkeen hizkuntza aldaketak saihesteko.

Udalen webguneak aztertu ditu UEMAK, HIZKUNTZA IRIZPIDEEETAN ARRETA JARRITA

ALARMA EGOERAN ETA OSASUN LARRIALDIAN, INOIZ BAINO GARRANTZITSUAGOA IZAN DA UDALEK HERRITARREN AURREAN EREMU DIGITALEAN EMAN BEHARREKO IRUDIA ZAINTEZA. IZAN ERE, HERRITARREI AURREZ AURRE ERANTZUTEN EZINTASUNAK ETA ZAILTASUNAK ERAGINDA, UDALEK BALIABIDE DIGITALEN BIDEZ ERAKUTSI BEHAR IZAN DUTE ZER IZAN NAHI DUTEN ETA ZER EGITEN DUTEN, BAI UDALEN WEBGUNEETAN ETA BAITA SARE SOZIALETAN ERE. UDALEK, ORDEA, EZ DUTE IRIZPIDE BATERATURIK HORIEN INGURUAN. BATZUK EREDUGARRI JARDUTEN DIRA, UDALERRI EUSKALDUNEI DAGOZKIEN IRIZPIDE ZEHATZEKIN.



Udal askoren webguneak dira eredugarri, euskara hutsean edota euskara nabarmen lehenetsiz.

Hori dela eta, UEMAKo kide diren udalen webguneak aztertu ditu UEMAK, eta azterketaren emaitzekin batera hizkuntza irizpideak eta gomendioak helarazten ari da orain udalei, banan-banan. Azken batean, ezinbestekoa da udalen irudi digitalean ere izaera euskalduna islatzea, udaletxeetan bertan edota herritarrekiko ohiko idatzizko komunikazioan egiten duten moduan. Hartara, herritarrek udalaren informazioa naturaltasunez euskaraz jasoko dute, eta horren bidez udalarekin hartu-emanak euskaraz bideratzea sustatuko dute. UEMAKo kide diren 86 udalen webguneak ez ezik, udal horiei lotutako beste hainbat webgune ere aztertu dira, turismoa, kultura edota kirola sustatzeko udalek aparteko webguneak baitituzte hainbat kasutan. Guztira, aztertu diren 124 webguneetatik, honakoak dira datu esanguratsuenak: 92 webgunek dute .eus domeinua eta 97 webgune euskaraz irekitzen dira beti. Dena dela, 15 webgunek besterik ez dute erakusten nabigatzailea euskaraz jartzeko eta lehenesteko mezua.

AURTEN ERE, ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ



Ohi bezala, errenta aitorpena egin daitekeen lekuetan jartzeko euskarriak prestatu ditu UEMAK, udalekin elkarlanean kanpaina ahalik eta herritar gehienengana iritsi dadin.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA ABIARAZI DU AURTEN ERE UEMAK, BERTAKO KIDE DIREN UDALekin ETA BESTE ZENBAIT ERAKUNDE PUBLIKOREKIN ELKARLANEAN. ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO DEIAREKIN, ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA ETA HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEA BULTZATU NAHI DA.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du aurten ere UEMAK, udalekin elkarlanean. Urtez urte, honelako kanpainen eraginez, gero eta gehiago dira errenta aitorpena euskaraz egiteko hautua egiten duten herritarrak, administrazioa euskalduntzeko ekarpena eginez. Era berean, errenta euskaraz egiteko deialdiarekin, herritarrak kontzientziatzea ere lortu nahi da, administrazioarekin erdaraz jarduteko ohitura iraultzeko. Izan ere, zergadunek hainbat bide dituzte errenta euskaraz egiteko, eta oso modu errazean gainera.



USKARA eta COVID-19a

EUSKARAZKO HAINBAT BITARTEKO ZABALDU DITU UEMAK KONFINAMENDUAN eta OSASUN LARRIALDIKO FASE BAKOITZEAN

ETXEALDI BETEAN ZABALDUTAKO 'ETXEAN GOXO EGOTEKO EUSKARAZKO BALIABIDEEN ZERRENDA' eta 'ETXEAN OSASUNTSU MANTENTZEKO EUSKARAZKO BALIABIDEEN ZERRENDA' MILAKA LAGUNENGANA HELDU DIRA; OSTALARI eta MERKATARIENTZAT ERE EUSKARAZKO HAINBAT KARTEL BANATU DITU UEMAK

Covid-19ak sortutako osasun larrialdiak eta horri aurre egiteko ezarritako neurriek goitik behera erasan diete udaberrri honetan herritarren hizkuntza ohiturei. Aisialdi eta kirola egiteko baliabide zein erreferentzia guztiak etxean bilatu behar izan dituzte, eta horretan laguntza eskaini zuen UEMAK martxoan, etxean goxo egoteko zein osasuntsu mantentzeko euskarazko baliabideak bilduz eta zabalduz, webgunean, sare sozialetan zein telefono taldeetan eta kanaleetan. Itxialdia arindu eta dendak, tabernak eta jatetxeak ireki ahala, berriz, merkatarien eta ostalarien eskura jarri zituen osasun neurrien inguruko kartelak. UEMAK, Bai Euskarari Elkar-teak, Eusko Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak egindakoak, zehazki. Azken bie, osasun larrialdiak iraun duen asteetan, adierazpenetan eta herritarre-kiko komunikazioan euskara aintzat hartzeko eska-rea ere die UEMAK behin baino gehiagotan.



UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR,

